## IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

## AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

# *HLEA*

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

**1 Edozein ..... gerta lekioke hori.**

a) mutilari
b) gurasoei
c) neskari
d) seme-alabei

**2 Litro bat ..... bost ogerleko ..... garai hartan.**

a) olio / balio zen
b) oliok / balio zuen
c) olioak / kostatzen zuen
d) olioa / kostatzen zen

**3 "Kosta zitzaigun irabaztea!" Zein EZ DA baliokidea?**

a) Ozta-ozta irabazi genuen.
b) Estu irabazi genuen.
c) Larri irabazi genuen.
d) Aise irabazi genuen.

**4 Zaharrak ..... gazte eta sasoiko franko ere joaten dira mundutik uste baino lehen.**

a) ezean
b) ez ezik
c) ezik
d) bezain

**5 Arin zihoan harekin denbora. ...., hain zen hizlari egoki eta suabea!**

a) Alabaina
b) Izan ere
c) Horregatik
d) Hala ere

**6 Egin ..... arabera egingo dugu guztiok.**

a) duzun
b) duzunen
c) duzunaren
d) duzunez

**7 Aukeratu esaldi zuzena.**

a) Zure bezala antolatuko dugu.
b) Gaur zinera joaten gara?
c) Ez dakizkizu indabak prestatzen.
d) Berri horrek eman digu zer pentsatua.

**8 Zein da haize-mota?**

a) Haize-begia
b) Haizeputza
c) Haizealdea
d) Hego haizea

**9 Zein dago GAIZKI?**

a) Datorrena nor den jakin behar dut.
b) Aizu, noiz alde egin duzun etxetik?
c) Norekin joan ote den jakin nahi nuke.
d) Ea garaiz zatozen.

**10 Zein da egokia?**

a) Nerea etorri eta bazkaldu du ere.
b) Jonek ere egin du lan hori.
c) Saioak badauka liburu hori ere bai.
d) Baita Nekanek ere afaldu du.

**11 "Porru eginda iritsi da." Nola iritsi da?**

a) Izerditan blai.
b) Goseak amorratuta.
c) Leher eginda.
d) Drogatuta.

**12 Zein da "iaioa" hitzaren sinonimoa?**

a) Zakarra
b) Sortua
c) Trebea
d) Ergela

**13 Bagdadek hainbat polizia ikertzeko agindu du giza eskubideak ..... eta torturak egin dituztelakoan.**

a) babestu
b) bermatu
c) sustatu
d) urratu

**14 Gatikan dute baserria eta bertan sagarrondoak, madariondoak eta .... dituzte.**

a) besteak
b) beste
c) besterik
d) besteak beste

**15 Errekadua egiteagatik eskupekorik eman dizute? Bai, ..... eman didate.**

a) ezer
b) edozein
c) zerbait
d) ezer ere

**16 "Gabonetan egon nintzen Mikelekin azken aldiz. ......... ez dut ikusi." Zein EZ DA egokia?**

a) Harrezkero
b) Handik
c) Handik aurrera
d) Ordu ezkero

**17 Badakit zientzialari horrek sakon ..... izarrei buruzko gaia.**

a) jorratuko duela
b) jorratuko dituena
c) jorratuko duen
d) jorratuko dituela

**18 ...... amaitutzat emango dut gaurkoa.**

a) Berez
b) Honenbestez
c) Izatez
d) Hasteko

**19 .......... horri erdia ere ezin zaio sinetsi.**

a) Ahosabai
b) Ahogozo
c) Ahomotel
d) Ahobero

**20 ......., noski, baina sarritan hura izaten genuen gai jartzaile.**

a) Askotan
b) Behin ez
c) Maiz ez
d) Beti ez

**21 Non dago ortografia-akatsa?**

a) kiratsa
b) mingotsa
c) kokotsa
d) gorotsa

**22 "Gaixo plantak egin zituen Iñakik." Zer esan nahi du?**

a) Gaixo antzean jarri zela.
b) Gaixotu egin zela.
c) Gaixotzekotan egon zela.
d) Gaixoarena egin zuela.

**23 Telebistaren aurrean beti ....... .**

a) lokartzen dut
b) lokartzen nau
c) loak hartzen nau
d) loak hartzen dut

**24 "Hutsaren hurrengoa da hori". Zein da baliokidea?**

a) Ez du gutxi balio.
b) Ikaragarrizko ospea dauka.
c) Ez du garrantzirik.
d) Hori izango da hurrengoa.

**25 "Ito egin zen; hala zabaldu zen berria". Zein da zuzena?**

a) Ito zenaren berria zabaldu zen.
b) Ito egin zela zabaldu zen berria.
c) Ito zelaren berria zabaldu zen.
d) Ito zelakoaren berria zabaldu zen.

**26 Zein dago GAIZKI?**

a) Bost kilo irabazi ditut.
b) Bost kilo gizendu dut.
c) Bost kilo hartu ditut.
d) Bost kilo gehiago naiz.

**27 "Oposaketak prestatu nahi ditut, baina .....".**

a) ez daukat apunteak
b) ez daukat astiarik
c) ez daukat denborik
d) ez daukat denborarik

**28 Lana amaitu ..... baino ez ..... jai eman.**

a) dutenari / dakieke
b) duenari / dakioke
c) dituenari / dakieke
d) dutenei / dakioke

**29 Esanak esan, horrek berean ..... .**

a) darabil
b) deritzo
c) darrai
d) dago

**30 Terek garaiz deitu izan ..... , ez ..... atzoko hitzaldia galduko.**

a) balizueke / zenuketen
b) bazizuen / zenuketen
c) balizue / zenuten
d) balizue / zenukete

**31 Aurrerantzean hobeto erreparatuko ..... eskuak garbitzen ..... ala ez.**

a) diot / dituela
b) diot / dituen
c) dizkiot / duen
d) dizkiot / dituen

**32 Itzul nadin argazkira eta ....... esku artean daukadan liburuari.**

a) begira diezaiodan
b) begira niezaioke
c) begira dakioke
d) begira iezadazu

**33 Idazle ....... bereziena da.**

a) bereziz
b) berezien
c) berezienetakoa
d) berezietan

**34 "Pozik egon zinen?" Erantzun ezetz.**

a) Nola ez, bada!
b) Ez eta dudarik ere!
c) Nola egongo nintzen, bada, pozik!
d) Ez nintzen, bada, egongo!

**35 Etxean egin ..... obrekin oso pozik gaude.**

a) zitzaigun
b) ziguten
c) zuten
d) genituen

**36 Ortografia-akatsa non dago?**

a) pazientzia / zibilizazioa
b) aieneka / oihuka
c) ehun / iaz
d) igeltseroa / hutzala

**37 Lanean ...... daramat.**

a) urte mordo
b) mordo urte
c) urte mordorik
d) urte mordoa

**38 Errenteriako jaietan izan nuen istripua, Madalenetan, ..... .**

a) halaber
b) bide batez
c) hain zuzen ere
d) bidenabar

**39 Bioaniztasuna galdu ahala, arrain kopurua ere ....... egiten da.**

a) bermatu
b) ugaldu
c) urritu
d) kutsatu

**40 Tikrit-en hiru bonba zartatu dituzte eta 10 ......... hil.**

a) lagunetik gora
b) lagunen hurbil
c) lagun gainetik
d) lagun gora

**41 "Gaixorik luzaro egona ote zen daukat errezeloa".**

a) Ziurtasuna
b) Susmoa
c) Gogoa
d) Enbidia

**42 "Jaialdira? Joango ez naiz, bada!" Zer adierazi nahi du?**

a) Zalantza
b) Kezka
c) Baietza
d) Ezetza

**43 Bete-betean asmatu duela esateko.**

a) Erdiz erdi asmatu duzu.
b) Erdi-erditik asmatu duzu.
c) Erdibana asmatu duzu.
d) Erdikoan asmatu duzu.

**44 Gure garaiko liburuetan letra besterik ez zegoen. ..... ederra dago gaurkoekin!**

a) Alde
b) Jauzi
c) Itxura
d) Prezio

**45 Han jartzen zituzten aizkolariak, zezenak, bertsolariak eta beste hainbeste ...... .**

a) ikuspegi
b) ikuskizun
c) egitasmo
d) iragarpen

**46 Zeintzuk dira antonimo?**

a) malda / aldatsa
b) solasa / berbeta
c) joria / urria
d) kemena / adorea

**47 "Segi pedalei ematen, lasterketa ..... ." Zein da DESBERDINA esanahi aldetik?**

a) irabazi nahi baduzu.
b) irabaziko baduzu.
c) irabazia duzu eta.
d) irabazteko.

**48 Gaztetan su-piztaile, heldutan ...... .**

a) su-emaile
b) su-zirikatzaile
c) suhiltzaile
d) suzale

**49 Halakoxea zen eguraldia ere: goibela eta ...... .**

a) eguzkitsua
b) lainotsua
c) oskarbia
d) gardena

**50 "Erromatarrek bere jauregia inguratuta, Anibalek bere buruaz beste egin zuen". Zer esan nahi du?**

a) Borrokatu egin zela.
b) Suizidatu egin zela.
c) Amore eman zuela.
d) Negoziatu egin zuela.

**51 Inork ez zuen espero, baina Petrovak ..... eman eta Mauresmori irabazi dio Mastersean.**

a) ezustea
b) amore
c) garrantzia
d) indarra

**52 "Dokumentuak garaiz eraman behar ditugu; ..... ez dugu subentziorik jasoko".**

a) bestela
b) bestalde
c) horregatik
d) ostera

**53 Zein dago ondo idatzita?**

a) Sipristina
b) Zetatia
c) Zumendia
d) Satorra

**54 Egin nuen eta kitto! Ez daukat inongo damurik ..... .**

a) hura egin izana
b) hura egiteko
c) hura egitearren
d) hura egiterik

**55 Gure osaba ez zen inoiz iritsi aita izatera, ..... guraso-lana egin zuen; ....., aitak egun osoa ematen zuen etxetik kanpo.**

a) baina / izan ere
b) hala ere / berez
c) izan ere / gainera
d) aitzitik / horregatik

**56 Ametsetan bizi ondoren, azkenean ...... egin zuen errealitate gordinarekin.**

a) zapla
b) ziplo
c) danba
d) talka

**57 Nolakoa da era batera nahiz bestera erraz toles edo oker daitekeena?**

a) Leuna
b) Hauskorra
c) Malgua
d) Bihurria

**58 Zein dago ondo?**

a) Edanari eman dio.
b) Ez zait gogorik ematen.
c) Bere burua argi bezala dauka.
d) Ez dakit nola azalduko dut.

**59 Zein EZ DA "nekatu" hitzaren sinonimo?**

a) abaildu
b) unatu
c) akitu
d) nagitu

**60 "Hor dago Patxi, geldi-geldirik: .........". Zein da jarraipen DESEGOKIA?**

a) ez atzera ez aurrera
b) ez arre ez iso
c) ez hara ez hona
d) ez han ez hemen

**61 Gosea adierazteko zein erabiltzen da?**

a) Tripak jaten nago!
b) Tripa-zorriak dauzkat.
c) Ni naiz tripazaina, ni!
d) Hori da tripazorroa, hori!

**62 Zein dago GAIZKI?**

a) Sekulako jaia asmatu genuen.
b) Sekulakoa atsegina da Eider.
c) Sekulakoa eman dio.
d) Sekulako gizonik ederrena da.

**63 Zein dago GAIZKI?**

a) Luze jo zuen bilerak.
b) Ederki asko jo nion adarra.
c) Buruan jo zidan horrek.
d) Pieza polit askoak jo zituen.

**64 "Lanean, beste edozertan bezala, tentuz jokatu behar da". Zer esan nahi du?**

a) Arretaz ibili behar dela.
b) Adorea jarri behar dela.
c) Nola edo hala, baina ekin behar zaiola.
d) Nekez jasan behar dela.

**65 Norbaitekin amorratuta zaudela adierazteko:**

a) Aspaldi jo nuen begiz.
b) Aspaldi begiztatu nuen hori.
c) Aspaldi begi eman nion.
d) Aspaldi hartu nuen begitan.

**66 ... sartu du gola.**

a) Hiru
b) Hirurek
c) Hiruk
d) Hiruak

**67 "Herrian bolo-bolo zabaldu da zure etorreraren berria". Zer esan nahi du?**

a) Herri osora barreiatu dela berria.
b) Kostata jakin dela berria.
c) Bozgorailuz eman dela berria.
d) Herrian pozik hartu dela berria.

**68 Zu ez al zara ..... sagardotegian afaltzen izan, ala?**

a) behin ere
b) inoiz ez
c) sekulan ez
d) sekula ere ez

**69 "Bi makulu besapean zituela, hor ikusi nuen Ines parkean ttirriki-ttarraka." Zer adierazi nahi du?**

a) Geldirik zegoela.
b) Kostata, baina ibili zebilela.
c) Marmarka ari zela.
d) Arrastaka zebilela.

**70 Oker egon ninteke; ...... nireari eutsiko diot.**

a) hain zuzen
b) beraz
c) eta
d) baina

**ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK**

**HLEA**

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | C | 11 | C | 21 | D | 31 | B | 41 | B | 51 | A | 61 | B |
| 2 | B | 12 | C | 22 | D | 32 | A | 42 | C | 52 | A | 62 | B |
| 3 | D | 13 | D | 23 | C | 33 | D | 43 | A | 53 | D | 63 | C |
| 4 | B | 14 | B | 24 | C | 34 | C | 44 | A | 54 | A | 64 | A |
| 5 | B | 15 | C | 25 | B | 35 | D | 45 | B | 55 | A | 65 | D |
| 6 | C | 16 | B | 26 | B | 36 | D | 46 | C | 56 | D | 66 | D |
| 7 | D | 17 | A | 27 | D | 37 | D | 47 | C | 57 | C | 67 | A |
| 8 | D | 18 | B | 28 | B | 38 | C | 48 | C | 58 | A | 68 | A |
| 9 | B | 19 | D | 29 | C | 39 | C | 49 | B | 59 | D | 69 | B |
| 10 | B | 20 | D | 30 | C | 40 | A | 50 | B | 60 | D | 70 | D |